

ATSOTITZ BERRI BATZUK

Nire atsotitz liburuaren bigarren argitalpena atera zenetik, handik eta hemendik zenbait atsotitz berri bildu dut. Denak ez dira erabat lehengoez ezberdinak baina beti zerbaiten aldea badute. Guztiak gordetzea merezi duela uste dut, atsotitzak gure kulturaren zati preziatuak baitira.

Batzuen esanahia zein den ez dakit eta holakoetan dudaren seinaleak ipini ditut.

Oraingoan lehen baino gehiago, euskara batura jo dut, batez ere nongoak diren seinalatu egin ez dudanean.

Ez ditut hemen lehenago neure liburuan esandakoak berriz esango.

Baina bai bi puntu. Bata, atsotitzen euskara zoragarria dela. Ez erdal hitzak sartzen ez dituztelako. Egitura erabateko euskalduna dutelako baizik. Euskara bikainak, behin eta berriz esan behar da, hiru alderdi bete behar ditu: euskara hutsik gabea izan, ulertteraza izan eta aberatsa izan. Hiru baldintzok betetzen dituzte euskal atsotitzek.

Eta beste ezaugarri bat: nik hamar hizkuntzetako atsotitzak aztertu ditut eta euskal atsotitzek duten laburtasuna ez da beste hizkuntzetan ikusten. Laburtasun hori batez ere aditzak kentzeak ematen dio.

Latin atsotitzak ere nahiko laburrak eta trinkoak dira. Euskara areago, alde handiz. Oraintxe orain atera da Jesus Cantera Ortiz de Urbina, Madrilgo Universidad Complutenseko katedradunaren liburu txalogarria, *Refranero latino*. Nik *Paremia* aldizkarirako kritika bat egin dior liburu horri. Berriz ere latin atsotitzak emeki aztertu ditut. Euskal atsotitzak laburragoak dira eskuarki.

Espainolez "Dijo la sartén al cazo, vete de ahí cochino", latinez "Ecce quam nigra es, sic dixit caccabus ollae" esaten da eta euskaraz "Zozoak beleari ipurbeltz".

Beste alorretan euskal ahozko tradizioa behartsu izan liteke. Atsotitz alorrean ez. Zorionez aspalditik euskal atsotitzen altxorra aberatsa da. Gal ez dezagun altxor hori.

Gotzon Garate

Abade makar kuku (bazterrak endredateko hala halakoa) (Lezama aldekoa)

Abenduko izarrak, atzetik elur eta kazkabarrak

Aberats Zenbat aberatsek baleki ze deskantsu hartzen otxarrena lagatakoan, denak ibiliko liake [otxarren: otar, otzaran, saski. Nekatu eta gero ko atsedena bai ederra!]

Adinean eta mendian gorago, ikuspegi handiago

Aginketan (agintzen) duenak jakin behar du, noiz, zela eta zeni agindu URA Ikus 282

Agintari on, egile txar

Agintzeko bibotea ipini bide (behar da)(Agintzeko larderia behar da)

Agornileko euria, arnoa eta ezlia

Agurra laburra, bota sutara egurra (Gil)

ahal Nork berak egin ahal dezakeena baino ezin egin

Ahalegina eginez gero, ez dago zorrik

Ahaleginak hamalau omen dira (Norbaitek ahaleginak alferrik egin dituela esaten duenari esaten zaio)
 Ahoan damua, bihotzean laztan (Itxuraz damutu, baina lehengo lepotik burua; aldatu ez)
 Ahuntz - Gizonak ezagutzeko ahuntza ipini O (Ahuntzak bazterretan aldrebeskeriaren bat egingo du. Hori ikusi eta bakoitzak daukan jenioa azalduko du)
 Aia Etorri dadila bat baldin bada, munduan eta Aian ORIO (Aian dago onena)
 Aida, xuria! Aditzak, gorria! (Lagun bati zer bait esan, besteak adi dezan)
 Aitak egin, semeak desegin (Gil) (Bai ondasunak bai beste alorretako kontuak)
 Aizkoraz egin eta aizkoraz galtzen da zuhaitza (onerako dena, txarre-rako erabil liteke)
 Akats izan Denetan bada itzel bat BOR
 akusatu Bertzeak ez dira eri zikin batekin erakutsi behar
 Alaba emaginari ama estalki
 Alaitasuna eta tristura itsaskor
 Aldapan behera santu guztiek laguntzen dute (gauza errazak erraz egiten)
 aldatu: Hiru gauzak gizona mudetan dau: estudixuak, emakumiak ta ardauak (Arrasate)
 Aldian aldikoa
 Alferra beti asmo huts
 Alferrak asmo asko
 Alferrentzat ez dago denbora luzeko pagotxa (zorte iraunkorrik ez alferrarentzat)
 Ama batek gehiago eitten dau bere seme-alabengatik esku bete uregaz. auzuek esku bete urregaz baiño (Xabier Kaltzakorta, Markina)
 Ama Birjina martxoko, ahari antzua larrean aseko
 Amagin-arreba eta hagin postizuak antzerakoak URA
 Amak uzten dauan hutsa, inok eztau beteten URA
 amarauna Eztu balio amarauna kentzeak, armiarma ezpada biltzen
 Amen-amen, baina eurenarekin irten
 andre - Lehengo andrie krixodie (neskame), bigarrena señoie
 Andre fina, etxe argi URA

Andre gastatzailea, famili galtzailea
 Andrea eta sardea hautsetan ahozpez
 Antzuolakoak sedak (bigunak)
 Apaizak hamabitan mahian bi begiak
 Apaizak sermoi gogorra, baina besteentzat
 Apiril bustiak dakartza ogiak
 Apiril jorra, behar jorra (utzi ezina)
 Aratusteetan kukumario jantzi Mond
 Arbola adar ihar gabarik ez eta neskatxa eder tatxa gabarik ere ez
 Ardi bila dabilenari, dena zintzarri hots irudi Quien tiene hambre con
 pan sueña
 Ardiak kandelariotan abarotan baino, otsoa artaldean ikustea hobe
 Ardo onak apar gutxi eta entenditzen ez duenak hitz gutxi Al buen
 callar llaman Sancho
 Ardo onak eta medikuak zahartu behar dute
 Ardoa ez da giza egilea (Tabernatik gauza bera esan ohi da)
 Ardoak, onak eta hobeak O (Ez dago ardo txarrik)
 Argazkietan [Fotografixetan], astoa ipini ezkerre, astoa irteten jon
 (Zer egin, hura azaldu)
 Arima gal, oro gal
 Arrasto: Noizean behin arrastotik irten ezean bizitza motela da
 Arraunerako botikan saltzen eztana behar dek (indarra) (ORIO)
 Artabille, biribille (Mendata) (?????)
 Artatxikia ez darama haizeak (harroak apalak baino errazago eror-
 tzen dira)
 Arteaga, kuartillo erdi (Mendata) (???????)
 Arteak ezkurrik bai, sagarrik ez
 Arto ugariak begiak bete eta arto bakanak ganbarak bete (Zestoa)
 Artoa usuegi dagoenean begiek poza baina biltzeko ona bakantxo-
 goa. (Gauzak beren neurritz onak)
 Artzain alferrak zakur ona KA (Lana kentzen baitio)
 Artzantza Belarri izkinak aldagoi eta bisutsarekin garbituz ikasten
 duk artzantzan
 Asaoko (urrutiko) behia, erro luze (Gil)
 Aski duenak ez du gehiago beharrik
 Aski ez duenak, deusik ez du
 Asko Hegazti asko harrapatzeko, banan-banan harrapatu behar
 Askoren soroak belar gaizto asko (Denen landan belar gaizto aunitz)

Aste Santuko haizea, hotza URA (Garizuma haizea) URA
 Asto bakarrak ez du astaldea egiten (Bat bakarragatik ez epaitu beste denak)
 Asto bat eta bi karga (Lan gehiegi)
 Asto gaiztoari nahi badiok errez eutsi, lan asko eta pentsu gutxi
 Asto handiak ostikada handia
 Astoak pentsurik ematen eztxakonien, arrantza eitzen dau URA (ezak arrangurak eta protestak ekartzen)
 Astoak urratsa zuhur (kontuz ibiltzen da. Gauza bera esan ohi da mandoagatik)
 Astoarengana ez da sorginik arimatzen (sokaz bularrean gurutzea egiten zaiolako)
 Astorik finenak, albarda txarrena
 Astorik nahi ez eta zaldirik izan ez
 Ataun guztia lapurra
 Atso zaharra mukizu, malezia franko ba(da)kizu
 Atsoa dantzara badoa, hauts asko jaso daroa
 Atzaparra ikusi eta arra kontatu
 Aurgora: Ez dago aurgora gabeko aurberarik (Bizitzan gorabeherak, nabita ez)
 Aurre eder eta atze demonio
 Aurrean batera eta atzetik bestera
 Aurrean eder eta atzean jan Mal
 Aurretik batera, atzetik bestera
 Aurretik lastan, atzetik saldu
 Auzoko ogia gozoago
 Auzokoa beti hobea
 Auzolanen dabilen astoa gosek akabatu (Bi etxeko zakurra...)
 Azak tripan, zein lepoan, berdin (Gil)
 Azala enparau ezkerro ez dago ardurarik (bizirik atereaz gero, gailzerdi)
 Azaro lohitsu, urtea garitsu
 Azaro: Behin azaroan sartu ezkerro, eguraldiaren segurantza miruaren buztanean egoten da ?????
 Azaroan (Zemendien) erein garia, idien apatxera ere! (bai eta idiaren kaskoan ere))
 Azaroko eguna, bostak eta iluna
 Azeria bere zuloan nagusi

Azkar usteko ergel asko dago
 Azkena ezarri beharrekoa, aurrena ezartzea txarra
 Bagillean (ekainean) kukua joan eta euliak etorri (Mal)
 Bai maiz esaten duenak, hitza atxiki ez
 Baino, baino, euria ari denean laino ["Baino, baino" ari denari esaten]
 Bakea, etxeko nekea kentzen duena
 Bakoitza bere zizkura Cada mochuelo a su olivo
 Bakoitzak bere etxetik ateratzen kontuak
 Bakoitzak bere pentzea ureztatzen du lehenik
 Bakoitzak bere etxea garbi dezala
 Baratzuria, hamahiru gaitzen erremedioa (Ataun)
 barre Gaurko barra, biharko negarra URA
 Bata - Gal bedi bata, ez batasuna
 Bazkari: Hobe komunean bakarrik bazkari ona, lagun artean txarra
 baino
 Baztandar tuku-tuku, kolkoan mila marra kuku (maltzurkeria)
 Baztandarrak hitz ederrak, almutea golkoan
 Begi handiak eta tripa txikia URA (begiluzearengatik)
 Begiak gose, tripa ase (BOR) (begiluzearengatik) denarengatik)
 Beharrak erakusten dik, eskolak baino
 Beharrak muturra beltza
 Behartsuak bi bider erosten du
 Behartsuaren pozak gutxi irauten (Behartsuaren poza laburra)
 Behea berotzen denean (sexua), goiak (buruak) ez du funtzionatzen
 Behi betizuak behi betizua bilatzen du
 Behi ederra, txahala eskasa URA
 Behi galdu duena, guztia zintzerots (zintzarri hots) (Quien tiene
 hambre con pan sueña)
 Behi ostikolaria eta andre berbalaria etxean onak ez Mal
 Behiak on du larre, aldean badu jabe (El ojo del amo...)
 Behin ez dena behin ohi da (inoiz gertatu ez dena, gertatzen)
 Belarriak ez dauka sasirik (nahitaez entzuten dute)
 Beldurra zuhurra (El miedo guarda la viña)
 Belu etzanik belu jagi
 Berakatzia ereiteko eta ezkontzera joateko ez da sasoi jakinik Mal
 Berandu Ordua pasatu eta gero, mezetara. (Ura joan da, presa egi-
 nean)
 Berba harroa et poltsikoa zimurra

Bermeon laurak ordu batak ?????????
 Berri guztiak on
 Berriketarekin jaten ez
 Bertzendako apez eta gerendako eskolaba (monagilo) ez
 Besteen atorrarekin ibiltzen dena, kale erdian biluzgorri
 Besteren bekatuekin ez da inor kondenatzen
 Besterik ezean, arto sikua be ona
 Beti beharrean eta kaka morralean (Gil) Lan handia egin arren, po-
 bre bizi
 Betiko ilargi beterik ez dago
 Bi diuenak bat, eta bat duenak batere ez
 Biajea egiteko, alkandora eta kontzientzia garbiak
 Bide zapaldua, bide segurua
 Bide zuzenez aberastea, nekeza
 Bihar festa eta soinekoa dendan
 Bihar zer egingo dauen dakienak, asko daki URA
 Bila dabilenak topatu egiten du
 Bilbo Txinboak
 Birigarriorik ez da kabitzen txepetxaren habian
 Bisurte dena irabazia edo dena galdua Mal
 Bixintxo bero, negua gero; Bixintxo hotz, neguaren bihotz
 Bizia Gure biziak hari bati datxeko Nuestra vida pende de un hilo
 Bizimodua gurutzea URA
 Bizitza erdixa osasuna galtzen ta beste erdixa konponketan URA
 Bizitza zigarroa letxe, sua, kea eta hautsa
 Bizkargin trumoi, Mendatan euria Mal ?????????????
 Burua galtzeko, dirua
 Burugin ona, lagugin txarra (Bizkargina laguntzeko txarra)
 Dagoenean dagoentxoa, ene enetxoa
 Damuak ez ditu zorrak pagatzen (Zorretan sartu baino lehenago er-
 ne ibili)
 Daukana isilik. Ez daukanak zarata
 Dena txarra duenik ez da, eta dena ona dugunik ere ez
 Denbora batzuetan txoria letxe bizkor joaten da; beste batzuetan ka-
 rakola letxe
 Denboran denborako gisa
 Denborari ez dago langa ipintzerik
 Denboriagaz ezaguketan dira pertsonak URA

Diru Ez gastatu dirurik, eskuan eduki artean
 diru Mizke makurra da dirua (lingirda bezala itsasten da)
 Dirua dantzan ipini, bere lana egin dezan. Geldi edukita lizundu egi-
 ten da.
 Dirua eta lapurrak, isilago eta seguruago
 Dirua lehorra (Diruzalea bihotz gogorra)
 Dirua zekena
 Dirua, deabruan gorotza El vil metal
 Diruak begiak okertzen ditu
 Diruak herba egin eta egia isildu
 Diruak bi urrats [pauso]; etortzeko soseguz eta joateko bizkorra
 Diruak bizioa
 Diruak ez du osatzen, lagundu bai
 Diruak ez du errukirik
 Dona Donakin, astoa here txalmakin
 donostiarrak Joxemaritarrak
 edale Gizon sudur gorria ez da eder; emazte sudur gorria sorjes
 Edalea bazara, jatekoari kenduta URA
 Edalearekin sekretu gutxi URA
 Ederra ez duk jaki
 Ederregia itsusgarri
 Edonon dagoena, ez dago inon (Quien mucho abarca poco aprieta)
 Eduki Bagenu zerekin, bagenekike nola (Ontasuna edukiz gero, zer-
 tan erabili jakingo genuke)
 Egia hutsak urrea balio du
 Egiak sasiak erre omen zituen (egia erregarria)
 Egin eta egin, eta irabazi ezin
 Egin eta egon eta ez egon eta egin [Hobe aurretik egin eta gero atse-
 gin hartu, egonean egon eta gero egitea baino]
 Egin ezak lo eta jango duk mehe ORIO
 Egin ezak behar duana; gerta dadila ahal dena
 Egin ezin duenak, isilik egon hobe URA
 Eginak esaten du zer den egilea
 Egindakoak erremediorik ez URA
 Egite onak atze (ondorio) ona
 Egiteko gauza ez denak, agintzeko gauza dela uste
 Egun argitan dira ardiak ezagutzen
 Egun bakoitzak aski du bere nekea

Egunak luze eta urteak motz (Oñati. Maria Luisa Aiaitui). (Batuetan horrelaxe dirudi. Lan zakarra egin behar denean eguna luze joaten da; urteak, herriz, goitik behera begiratzuz gero, laburrak)
 Egur eskarmentatua sugin ona (eskarmentuak bizitzan asko erakusten)
 Egur hezeak gar eta negar
 Egur zaharrak su gutxi URA
 eguzki Den denentzat ateratzen da eguzkia (Gil)
 Eguzkiak daukan onena gerizpea
 Ehun fraide, berrehun potro (fraideak lasajak dira)
 Ehun idi parek beno gehiago tiratzen dik kastak
 Ekaina bustitsu, gure nagusia kexu
 Elkarren hurtxo (hurtzil) izan ohi dira ezea eta igarra
 Elur mendixen, haize hotz herrixen URA
 Emaile gutxi, eskale asko (Gil)
 Eman eta kendu, ifernuko txerrenak hala egiten du
 Eman gura ez duenak, aitzakia asko URA
 Eman, hartu (Gil) (gutxi izan arren)
 Emazte doilorraren jabea, jopu
 Emaztearen gaitzez xikira zedina, adarrekin chortz zegin
 Entzun, ikusi eta isilik, ez xauk holako mutilik (Oñati)
 Entzuten den kanta, eta ikusten ez den argia alferrikan dira Mal
 Erbi geldia baino bide luzeago egiten du bareak ibilian
 ergel Azkar usteko ergel asko dago
 eri Bere nahiz eri denarentzat erremediorik ez
 Eroak ere ez dio bere buruari harrika ematen
 Erosi merke; hartu garesti (Gil)
 Errementaria senarra, Jaungoikoak hobe dinaala (arotzak miserian bizi omen ziren)
 Ertzak ertzekin Los extremos se tocan
 Esale, entzule
 Esan Zer esan beti dago, zer jan ez
 Esanago eta okerrago
 Eskuen eduki arte ez kontatu URA
 Esne: Ai Santa Mariñe, Santa Mariñe, esne gitxiez asko egine (Gil)
 Etsaiak ezin izar (izartu = neurtu; izari: neurri), adiskideak bakar
 Etxe barrua atal aureak erakusten
 Etxe handi, sukalde tipi (Etxe dotoretan sarri gaizki jaten)
 Etxe onean berri txarrak ez

Etxeak su duenean, denak bero (ondasunak daudenean guztiak ongi)
 Etxean pertza zuloekin eta auzoan eltze konpontzen Consejos vendo
 y para mí no los tengo
 Etxeko eltzei gatza botatzen hasten den garaian ikasten da zer den
 bizitzea
 Etxetik urrun, denok umezurtz (Edorta Jimenez)
 Euliak zaintzeko ez dena, euliek jaten dute (Nork bere burua babes-
 ten jakin behar du)
 Euria baino lehenago guardasola zabaldu (denbora baino lehen
 arranguratu)
 Euskaldun: Bi euskaldun, apustu bat
 Euskalduna, fraketan ere ezaguna
 Euskaldunaren berba, legea Mal
 Ez daukanaren eman beharrak et daukanaren gorde beharrak han-
 diak dira Mal
 Ez egin gaitzik eta ez izan beldurrik
 Ez eskaini (mehatxatu), atera datorren arrotzari
 Ez gizon eta ez emazte (Ni chicha ni limonada)
 Ez hauts eta ez ikatz Ni chicha ni limonada
 Ezagutu Ondo ezaguketan den bidea da motzena URA
 Ezak emana, ezak eraman (Ustekabea etorria, ustekabe joaten)
 Ezbeharra beti txarra
 Ezjakina erraz menderatzen da
 Ezkondu artean larri eta gero barregarri
 ezkondu Zurekin ezkontzeagatik joan nintzen Erromara; zu lagatzea-
 gatik joango nintzake Jerusalem
 ezkontza Nahi du amak ezkontzeko nire moduko batekin, dote
 emango didala oilo loka lau txitekin
 ezkontza - Sats bako ereitea eta pobrearen ezkontzea berdinak
 Ezkontza egunean gizon egin edo galdu egiten da (ona bada egin,
 txarra bada, galdu)
 Ezkurretik ezagun da haritza
 fama Batzuek fama eta beste batzuek zama (batzuek fama eta beste
 batzuek lana)
 famatu Bakoitzak bere bidea famatu
 Gabearen hatsa, kiratsa (Gauean giroa iluna eta goibela)
 Gabearen mintegia apur, dena ere makur
 Gabiritarrak makilariak

Gabonetatik San Antontxuketara ardi baten alaurixa (auhena, haspe-
 rena) luzetan da eguna
 Gaintzakoak zapoak, konkak
 Gaizki esanaz damutu URA
 Gaizkilea kaxkarra izanagatik, haren haginari ongi begiratu (Etsai
 txikiekin ere kontuz)
 gaizto Bere gustua eginez gero, gaiztorik ez
 Garagarriaren (ekainaren) erdian eta abenduaren erdian, gau eta
 egunak berdin
 Gastatzen ez duenak, etorri (irabazi) txikia ere handia du
 Gatika ahuntz herria
 Gatu zaharra ohoín izanagatik, ez dezakala urrun gelatik (Pertsonak
 ere, zaharrak barne direla, alde batetik traba egiten badute ere,
 bestetik mesedegarri dira)
 Gau erdiraino besteren emaztearekin, halere beldurrekin
 Gauean alai, goizean triste URA (parrandan ibili eta gero)
 Gauez txori eta egunez mozolo (parranda zalea) (Asier Bidaurreazaga)
 Gaur ezin bada egin, bihar edo etzi
 gaur San Juan, eta bihar juan (joan) zan
 Gazeta sinistu, gezurra sinistu
 Gaztea heste bakarrekoa O (Gazteak buruan ere hesteak)
 Gaztelaua nagia senar, oinean har eta begian negar
 Gehien dena nagusi! (onena irabazle)
 Gehien egiten duenak, gehien galdu
 Gerezi aldi, osasun aldi
 Gerezia eta emakumea, jaterakoan ari dan artean gusto ederra, ta ge-
 ro kalte
 Gereziak [Kerixak] heltzen direnien, udabarrixa URA
 Gerizperik bako eguzkirik ez URA
 Gernika, ifernuko barrika (Mendata)
 Gezur asko elekziñoetan, gerra denboran eta ehiza [kaza] ostian
 Gizagaixoaren oinean bi arantza
 Gizon apalak ipurdia apala (Behartsua beti eskas eta beharrean)
 Gizon beharra gogo huts
 Gizon ederra lanean zuria URA
 Gizon guztiek burua baltz, zein den hobeia igertie gatz
 Gizon: Ona, ona, baina gizona (Errenteria)
 Gizona ez duk jakiten zenbateraino den, probatu arte

Gizonari zer gertatzen zaion urteekin, probatu arte ezin jakin
 Gizonetik gizonera alde handirik ez; denok ezberdinak, ordea.
 Gizonik txatxarrenak here, ardoa edan ezker, bi balio ditxu URA
 Gobernua eta eliza elkarrekin dabilzanean, txarra
 Goiz argiak arrats iluna
 Goizean jaiki berandu, bazkaria berandu
 Gollibarra (Bolibarrera) eta Munitxibarra ez joan andretara eta txaha-
 letara (Markina)
 Gosea guztientzat berdin
 Gurasoen zorra, norbera umeak bazten hasten denean pagatzen da
 Gustuena dagoen garaian atean gurutzea
 Gustuko tokian zangoak arin
 Gustuko tokian, aldia labur
 Gutxia estimatzen ez duenak, ez du asko izango
 Haginik ez, minik ez (Aberastasunik ez, kezkarik ez)
 Haizeak gugatik nahi duena egiten du
 Hamaika hamaika t'erdiko bada munduen [Hau ez dago atsotitz libu-
 ruan] IP
 Hamaika, ohean kaka (Gil)
 Handi bezain fina banaiz zuretake sobra naiz
 Handi bezain on bazara, niretake ona zara.
 Handik gaiztoak diren tokian ez eskatu txiki onik (Handiak usteldu-
 rik, txikiak ere bai)
 Handi-mandiekin urratsa labur
 Handixe bada, tartana; txikixe bada, enana; sekule ezta faltako zere-
 sana
 Haritzak anitz adar ekartzen du
 Harri bakarrik ezta hormarik egiten URA
 Harri bako karnifua eta maitasun bako ezkontzia berdin URA
 Harrizko makila kraskakorra (hauskorra) (Batzueta itxuraz gogorre-
 na, egiaz hauskorrena)
 Harrokeriak gerra; lanak bizimodua
 Hartu gabe ematen duenik ez da
 Hartzen baduzu andrea gaztea eta umetsua, zeuretzako askotan falta-
 ko zaizu pentsua
 Hau egingo litzake mutila, emango baliote opila (Aski jancez gero,
 handia egingo)
 haur Inoren haurra beti txarra

Haurrak hazi inoren etxean agudo hazten dira haurrak
 Hazi gaiztotik bihi gaizto
 Hazi xeha berehala sortu
 Hazia usuago, uzta txarrago; hazia bakanago, uzta ederrago Tanto
 mejor es la cosecha cuanto menos tupida es la siembra
 Hazitarako - hemen ez inor geklitzen hazitarako Ikus 7754
 Hegaztiak zirinetik zer den ezagun dik
 Heriok begiak zorrotz G Ikus 7843 huri:
 herri Nolako herri, halako alkate [2. arg. ez]
 Hesiari salto egiteak ondorio txarrak (Legoa hausteak ondorio txarrak)
 Heureak estali eta besteenak agertu: ez haiz gizon prestu
 Hil arteraino bizi eta anarteraino ez izu Ikus 7922
 Hil beltz, hil txuri (Urtarrila elur hila)
 Hil nahi dugun zakurra kukusoz betea (gorroto dugunaren baitan
 hutsak ikusten)
 Hilak hila gainean du eta urteak urtea (denbora azkar igarotzen)
 Hilaren bian euria, hil osoan euria Mal
 Hiri erraten diat, gorria, adi dezan xuriak A tí te lo digo, Juan, para
 que me entiendas, Pedro. Ikus 441
 Holan holanetan, zozoa kantetan; zu lako mutikoak kaka fraketan
 hordi Non hordia, han deabrua
 Horma ostien bere ezazu esan zeure sekreturik
 Hostoa etortze, arto egite; hosto erortze, gari egite
 hotz Hiru gauza hotzenak: zakurraren sudur punta, gizonaren belau-
 na eta emaztearen ipurdia
 Hotz larregia zaharren hilgarria eta gazteen zahargarria
 Huts eginak apaizentzat (Haiek barkatzen baitituzte hutsak)
 Ibarrangelua, ganbela burua (Mendata)
 ibili Dabilenari gertatzen jako
 Idekoak (kidekoak) elkarrekin
 Idia nora, gurdia hara URA
 Idiak adarretik ematen du esnea (Zerekin lan, harekin etekina)
 Idiazabalgoak azeriak
 iduri Elkarren iduriak elkarrekin
 Ijitoen partiketea (hanatzea): Bat niretzako, bestea zutzako eta hau
 niretzako
 Ikusten ez duen begiak penarik ez
 Inarrozi ezak ezkurra duen arbola

Inbidia, botikekin sendatzen ez den gaitza
 Indarra eta dirua, gordetzen dakienak azaltzen ditu Ikus 7059
 Inoiz errespetua norberak galtzen du (besteak errespetatzen ez ditue-
 na, besteen errespetua ez du izango)
 Intxaurrondoak eta emakumeak astindu bat behar izaten dute lantze-
 an behin [astakeria galanta]
 Ipurdiko azkura datorrenean, garza merkatuko den seinalea URA
 Iraina, arrazoirik ez duenaren arrazoia
 Irribarre egiten diguten guztiak ez dira lagunak
 Irritik zoroa ageri En la risa se conoce al necio
 Irule onak ez du harian leporik egiten No hace nudos
 Irulegiko arnoak etxera heltzen; Tafallakoak bidean uzten
 Isil, baina hil
 isilik Zaude isilik, ez duzu entzunen gaizkirik
 Ispaster, mozkor bazter (Mendata)
 Itsasoa da bakarrik beti gora joaten ez dena (Prezioak gero eta gares-
 tiago, gorago beti)
 Itsasoari harrapatua, itsasoak harrapatu
 Itsuek be begitxu (begiratu) egiten deu, baia ikusi ez
 Itzai txarrarentzako sekula ez itzulari onik
 Itze herdoildua ere asko joz sartzen da La constancia lo consigue todo
 Izan bazina antxume ona, ez zinen egongo zazpi umeren ama
 Izan: Dugunaz ez dugu konturik egiten (Osasuna eta beste gauza as-
 ko, galdu arte ez dugu aintzakotzat hartzen)
 Izanak ez gaitzik egiten, eza da beltza Ikus 5683
 izen Guk izenak eta berok gizenak Unos la lana y otros la fama
 Izenez batera, eginez bestera Ikus 9020 hurr.
 Jai gauean alai, astelehenean lo nahi
 Jai Txanda dantzetan, jai handietan (jai handietan dantzan egiteko
 aukera handia izaten da)
 Jaikiera onak ingurume ona (A quien madruga, Dios le ayuda)
 Jainkoak bildotsari ilearen araberako haizea igortzen dio
 Jainkoak hotz adina estalgarri
 Jainkoari kendua, deabruari emana
 Jakin Dakiena buruan eta ditxuenak aldian (aldean) Itziar Ajuria, El-
 goibar
 jakin Begira hadi erraitetik dakizkian guztiak
 jakin Ez dakienak baleki, konponduko likek poliki

jakin Lehentxuau, berandutxuau, dena jakiten da URA
 jakin nahiak konta nahia berekin
 Jan Gutxi eta txarto janda, oiloak arrautza asko ez Ikus 12403
 Jantziaren duin ezta beti gizona El habito no hace al monje
 Jaten ematen diana, huraxe zeure laguna
 Jaungoikoak ez ditu argizarizko begiak
 jende Nolako jende, halako ele
 Jenero hobe baina, benta hobe hobeto (erosle asko denean, jenero txarra ere saltzen da) Mal
 Jezten ez dakienarentzat behi guztiak antzu (baliatzen ez dakienarentzat aukera onak ere alferrik)
 Joate alaiak etorrera triste
 Jokalariaren alosak (zorroak) ez du lotzeko lanik (hutsik dagoelako)
 Jokalariaren lasterra gora eta behera; goratzea egi erdiraino; beheratzea hondarreraino Ikus 9579
 Jokalariaren moltsak bi zulo
 Jokalarien goratzera erdiraino, beheratzea ondoraino
 Jokoak, emaztek eta arno onak belzten dituzte gizonak
 Kaiola ekarri eta txoria falta Ikus 9701 hurr.,15001
 Kanpoko tankera nolako, hala moduzko barrua
 Karlistak eta muerria (belar txarra) sustrai sakonak (Antzuola)
 Karobi ondoan beti bero Haserrearen ondoren beti ezinikusia gelditzen Ondasunen ondoan giro ona
 Kasu eman, gora dagoen udarea ez dadin eror lurrera
 Katu gutiziari muturra erre Quien escucha, su mal escucha
 Katua etxean, zakurra nagusiaren mendean
 Kazuela bateko sardinak, denak berdinak
 Kideak kideekin
 Komenturako dena da ona
 Konformatu: Nolanahi konformatzen dena, beti bere hartan gelditzen da
 Kontu kontulari bideko zamari
 Korta handia eta txarria txikia URA
 Kortezubi, inperuko zubi (Mendata)
 Kuarta denporatan gelditzen den eguraldiak hiru bat hilabete irauten du (Ikus 10081)
 Labea bai eta ogirik ez
 Lagun eletari bideko zamari.

Lagun Estuasuntan ezagutzen dira lagunak
 lagun Nor nolako, laguna halako
 Lagunketara gertu eztauen laguna eta ebakitzen eztauen kutxillua,
 berdin
 Lainatu bere bai, oskarbi bere bai, euria bere egin leinke ta ateri bere
 bai
 Lan eginak ez dit egiteko lanik
 Lan Itsasoa lanean dagoelako, beti garbi
 Lanak berak topetan dau lana URA
 Lanari bere, dagoenean obatu (oratu, eutsi) behar jako URA
 Lanetik zabalketan den bidea da garbiena URA
 Langile onak, ondokoei eginarazten
 Laprast egin (irristatu) eta Kakatxan urten (Mendata)
 Larrabetzukoak akerrak
 Larregiz eta gutxiegi huts egin liteke Se puede pecar por exceso y
 por defecto
 Lausengu Ez lausengatu aurretik; ez jorratu atzetik
 Lehen negarrez, orain parrez, xaguxarrarekin ezkondu nahiez Ikus
 5786,8738
 Lehenago ez zen dirurik ikusten
 Lehenak lehen, gero gerokoak En orden y concierto Ikus 10601
 Lehenengo egin, gero egon (Deba Ibarrean)
 Lehenengoa señora eta bigarrena eskoba (Ezkontzako andreak) Mal
 Ikus 6831
 Lehengo egin, gero egon (Debako ibarrean)
 Lezama aker herria
 Lo ederra, osasun ederra UR
 Lo erreak petralkeria berekin
 Lokatzetatik zingiretara
 Lotsa galdu ebanak, bere burua basatzara jaurti eban
 Lotsagabetu nintzen, eta ogiz ase nintzen
 Madalen Santi(a), txikixe haña sarratu tanti (madalencetan curi xehia
 haina eten gabe) Ikus 10842 hurr.
 Madalena astea bero, hagaka gero (gaztaina ugari hagaka hotatzen)
 Ikus 10849
 Maiatz eurite, ekaina errautsu, orduan da laboraria urgulutsu Ikus
 2438,10887,11213
 Maiatz hotz, urte hotz (uzta txarrak)

Maiatz jorra, alfer jorra
 Maiatz luze lukainka jale Ikus 10899
 Maiatza hotzak eta goseak hil Ikus 8235,10922
 Maiatzeko berdatean azpian edukitzen zuen aulkia erre zuen aitonak
 ID Ikus 10925, 10942,10952,10960
 Maiatzeko perrexila urte osorako eta iraileko betirako Mal
 Maitasunak dena leunketan dau URA
 Maitasunaren ordaina maitatzea (Amor con amor se paga)
 Maitatzeak maitatze du hartze
 Makila Ez sartu makila hautsiarekin maindire baten azpian lo egiten
 dutenen artean Ikus 11043
 Maldizioa eta prozesioa iriteten diren lekura atzera sartzen dira
 Mañarikoak sama luzeak
 Maria eta Katalin gure etxean oro berdin
 Martin Poxpolin, abarka zahararekin, konejua dirudi bere bizararekin
 Martxo lore, urde lore (alfenik galtzen) Ikus 11222
 martxo Marti ezkerro, ardi ase eta idi gose (Gil)
 Martxo Martiko antxobia, erdia mamiña ta erdia ura On
 Martxo Martiko eguraldia, goizean euria eta arratsaldean eguzkia Mal
 Martxo(are)n erdian, gau egunak berdin
 Martxon zenbat izotz, apirilean hainbat elur Ikus 1159
 Mende berriak, moda berriak
 Mendiak gorri, ez ogi eta ez bizi (3. ez) Zuhaitz gabeko mendiak txar-
 rarak
 Mendiko ganaduak mutur zekena (protxu gutxi ematen) URA
 militar Estamentu militarra, ondo jende klase txarra (Gil)
 Min bako negarrak, negar anpulu(r)ik ez
 Minik onena alboko (besteentzat) Gil
 Mokadu handia nahi duenari ezarrian gelditzen
 Moltsa bai, dirurik ez (Gil)
 Morroiak lan asko egitea nahi baduzu, pardel (jan) ona jarri
 Mozkoraren etxean eguerdiko habak arratsean; alferraren etxean ez
 eguerdi eta ez arratsa
 Mukirik ez den tokian panuelua prest BOR
 Mundua datorren moduan hartu behar
 Muskerra eta sugea beti elkarren ondoan Mal Ikus 11621
 Mutiloa herrikoak zerri gorriak
 Mutilzahararen pobrezia, inork ikusi nahi eza

Mutxarriak antxoa txikiari, argala (Zozoak beleari...) Javier Subiñas
 Muxike, atso guztiak puxikan (Mendat)
 Nafar apaizak giputz iztupe, giputz apaizak nafar iztupe atorra
 (Nork auzokoa hobe dela uste)
 Nafarrak sarrera beroa, iteera hotza (Hasieran adiskidetsu, azkenean
 hotz)
 Nagientzat lan onik ez, eta langileentzat lan txarrik ez URA
 Nahasi Gauza onak eta txarrak nahasian izaten dira
 Nahi Beti nahi, beti nagi (Nahi hutsez dabilenak, ez du ezertxo egiten)
 Nahi duena egiten duena, nahi ez duena hartzen du
 Nahi duenak ahal duenak baino gehiago egiten dik
 Negar Anpulu bako negarrak, minik ez
 Negarra eta poza ate guztietatik ibiltzen dira
 Negu xukoaren ondorik, mahats urte
 Nekez etorritako pozak luzaro irauten; samur etorritakoa samur joaten
 Neska zaharra ezkondua? Ahitua bere gozua!
 Niretzat patata okelaz egosita, okela inork jan arren (gustu hobea
 izango du, gutxienez)
 Nola esan, hala entzun A palabras necias, oídos sordos
 Nolako eltzea, halako burruntzalea
 Non erromeria, han dantzan
 Obra bako berbak, heste (soka) bako gitarria Por las obras se cono-
 cen las personas
 Odolosteak eta abariak (abadeak) egitten diren modukuak urteten
 dabe (Oñati. Maria Luisa Aiaastui)
 Odoritz, ez esne eta ez oritz Ni chicha ni limonada
 Ohakoan (sehaskan) ikasia ezin ahantzia
 Oho! gutxi den lekuen aulki txikia (Ondasun txikiarekin ezin gauza
 handirik egin)
 Oihan orotan otso bat
 Oilaskoz ase, ala artoz ase, asea beti da ase
 Oilo gosetia artalea amets Ikus 16459
 Oinaztura handi eta euri gutxi Ikus 9683
 Oizen trumoi, Markinan txiza (euria) Mal
 Okarana kaka zirintsu [Ciruela abre la portezuela] (Kaka eragiten
 duela)
 Okerreko bidea hartu eta bideari kulpa
 Olaberrikoak sorginak

On hutsa, kaka hutsa
 Oñatikoak txantxikuak
 Ondo bizi nahi baduzu, hartu ezazu laguna antzua eta diruduna
 Ondo eginak gaitzik ez Ikus 12663
 Ondo joanak ondo daude et jutekoak ikuskizun
 Ondu gabe fruitu guztiak kirats
 Ongi egin eta utz erraitera (ongi egin eta hor konpon esamesak)
 Ongi eginari ondotik itxindu Ikus 12659
 Ora ez da harri ukaldiz ematen Ikus 16113
 Orendaingoak eltxoak
 Ormaiztegikoak harrikariak
 Orri irte, arto ereite; orri lehorta arbi ereite; orri erorte, gari ereite V
 12902
 Osasuna, pobreaken ondasuna
 Oski osoa, naiz etena, eskuan baino oinean hobe
 Ostiral Sainduz orantza jaikitzen ez (minaren minaz)
 Ostirala eta larunbata, barau egunak; eta igandean zer janik ez
 Ostutako gauza bere jabea dei egiten
 Otsailean gizona mauka hutsean ikusi baino otsoa artaldean ikustea
 hobe Ikus 9757
 Otsaileko hotzarekin katuak bero (sexuz bero, estaltzeko garaia)
 Otsoa ahoan eta otsoa atean
 Otsoa, otsoa" diotelarik, azeria bederen badabil Cuando el río suena,
 agua lleva
 Otsoari ihes eta hartzak atzeman
 Otsorik onena ere nahiko gaizto
 Pagatuta atsedena [deskantsua], kobratuta zerua
 Parte gaiztokoak indar gehiago izan O
 Perrexila bentanetan dagoen etxean, neska zaharra seguru (Mendata)
 Peru eta Maria, argia amata (itzali) eta burrukaldia
 Pezetatik ez dute durorik ematen
 Pikaren umea nabar
 Pittiri Danbolinek guztioi jotzen digu soinua berdina
 Pitxilipeta (tximeleta) orixa, hiru egungarrengo eurixa (Izag Oñ)
 Pixka bat eman et asko hartu
 Pixke ta pixka puska Ikus 2374, 5268
 pobre Gizon pobre, amets huts
 Pobreak hiru etxe ditu bereak: eliza, ospitala eta kanposantua

Pobrien etxien denak berbetan altu Mond
 Pobrien etxien denek arrazoia Mondr
 Polita izateko ez dago hanka mehea izan beharrik
 Portaletarik ageri hiria (jantziak gizakia salatzen)
 Potea pote, nahiz piper da nahiz tomate A caballo regalado..
 Premian Jaungoikoak beti laguntzen
 Probatuta jakiten da, nahi eta ezina zer den
 Puskaka-puskaka egiten da zatia
 puzkar Nork here puzkarrari "Don Fernando" eta besterenari "kaka
 mokordo"
 Puzker Dezakeenak dezake puzkerra gerrenean sartu (batzuk an-
 tzatsu)
 Sagar erreak hesteak lehortzen (Membrillo cierra el portillo)
 San Andreserako, euli guztiak galbahera (Azaroaren 30rako culiak
 galtzen)
 San Blas, jan eta jolas [2. ez]
 San Dramalan Gantzan (Aramaiko auzoa), akerkidxe jan eta dantzan
 Gam AB
 San Juan egunean arbola hazian lau sagar
 San Lorentzok badakar euria, lurrak emango dio ongi etorria
 San Mark alderat, ardiak bortarat, artoak lurrera Ikus 1550,
 4418,13911,13914
 San Markez artoak lurrialat, ardiak bortialat
 San Marko bortz kapusaiekin hotzak hil emen zen
 San Migel, zaragixek Xemeinen
 San Simonetan, kapa zuria mendietan (urriaren 28)
 Santa Kruz Bizkergiko (mendi bat), inerra lorea, baba guztiek baino
 bera dok hobe (Martin Orbe)
 Santa Luzia hazi edo hazi ez (=eguna luzatu), igerri ere ez Mal
 Santiago Santanako asete on batek ontzi horiek baino gutxiago balio
 dau (Oñati. Maria Luisa Aiaitui)
 Santio egunean euria, urre gorria
 Santuei eta umeei poliki egin eskaintzak (gero eskatu egingo dituzte
 eta)
 Sasondo (sasi ondo) belarri ondo (kontuz, dena jakiten da) Ikus
 14150
 Segura Lumerakoak zopa jaleak ?????
 Segurak izen hobe dauka, Bitorik baino Ikus 16366

Segurak Zegamak baino izen hobea du (segurura jokatzeko duena,
ongi ibiliko da)
Senideak eta zorrixak, urriñau eta hoba URA
Six fois six, trente six, errekaldeko Frantxis, haugi gure etxerat, pun-
pe batez baserak et denak hautsiz
soka Bakoitzak bere sokak urkatu ohi du (Gaiztakerietan dabilena,
gaizki azkendu)
Sonbrero buruan eta patrikara hutsa (itxura bai, dirurik ez)
Suerte ta logurea berez etorri behar Mal
Sukaldeko elatza (laratza) igeltseroak ezto behin ere zurretzen (etxeko
gorabeherak ezin dira zuritu eta aldatu)
Surratsa (ahoko usain txarra???) jaukon enbreak (emakumeak) etxeok
balio umeak egiteko (Orozko)
Tantiruri oro elkar iduri
Teilatupe asko duenak buruhauste asko (Aberastasun handiek kezka
handiak)
Tolosakoak kaskarinak .
Tolosakoak zuri-eder faltsuak
Tolostura lapurra (jantziak laburtu egiten direlako)
Tonto tontoa nintzen, neurekin pasatu nintzen; azkar azkarra nin-
tzen, denan behar nintzen (Ergelak errazago moldatzen bizitzan)
Tresnarik gabe langile onik ez
Tripa gizenak ez du burura argitasunik eramaten
Tripandi: Dabilena tripandi, ez dabilena buruandi Ikus 13609
Trumoi urte, labore (uzta) urte Mal Ikus 14758
Txandaka izaten dituk lukainkak
txar Dena txarra duenik ez da
Txarrik aditu nahi ez duenak, isilik egotea hobe
Txarto egiña ezta ahazten URA
Txerrimoniak txerria hiltzean (gauzak bere garaian)
Txiki handiak etxe hondatzaile (Diru gutxi izan eta handiki ihardun
nahi)
Txikiñak (Txikienak) haundixari irabazi leikio (No hay enemigo pe-
queño)
Txori herri aker herria
Txori txarrak (txikiak), txinta (kantu) txarra (txikia)
Txoriak nik haizatu, bertzeak hil
Udaberrit sikua, uda guztiko gosea Mal

Ume asko(re)n ama, demandalaria (kexulari, demanda asko egingo du)
 Ume hazteak herria beldurtu O (Haur hazteak neke handia ematen)
 Umea egin zuen, kaka egin zuen
 Umedunaren eta ume gabearen azkena bat: hiltzea.
 Umeekin lau begi ere gutxi
 Umerik ez daukana zerk hil ete eban? Ba horixe, ez eukidzek XB
 Umerik gabeko etxea, etxe mutua
 Umiltasuna ezta buru makur ibiltzea
 Umore ona sabeletik irteten da (De la panza sale la danza)
 Upelak ere daukana ematen du (Zer eduki, hura eman)
 Ur bedeinkatua Nik ur bedeinkatua eman nion: ez dakit sinatu ote zen (nik lagundu nion; berak zer egin zuen ez dakit)
 Ur beroak erre duen potztoa (txakurra) epelaren beldur (Gato escalado del agua fría huye)
 Ur garbia iturburuan
 Ur garbia iturburuan KR
 Ur geldia behin mugitzen hasiz gero, ezin gelditu (persona ona, bihurtuz gero, onera ekartzen zail) Mal
 Ur geldiek saltorik handienak
 Ur isilak salto handia
 Ur lasterra beti garbi (Agua corriente no mata a la gente)
 Ur lohietan ezkailluak (A río revuelto, ganancia de pescadores)
 Ur ziriztek erakusten du iturria; hitz onek gizon argia
 Ura eta su auzorako (urruti hobeki)
 Urak begiak argi eta gerria mehe (edozein zirrikutatik igarotzen)
 Urak esnea galtzen du, eske soberak adiskidea
 Urak eta andreak, ez dute usainik eduki behar
 Urdea hil eta kurrinka bizi (Diru hartzailea hilda ere zordunari zorra barkatzen ez)
 Urik ez duen errotak soinurik ez
 Urrunago, berriak handiago
 Urrunago, gezurak handiago
 Urruneko arrautzek gorringo bi
 Urruneko behiak errape handi
 Urruneko ederra baino, inguruko eskasa hobe URA
 Urrutiko kutzak beti gainez, bertaratu eta batere ez De luengas tierras, luengas mentiras

Urtatsez (urteberriz) elur, Pazkoz lili
 Urte bat da ama, bertzea amaizun
 Urteak adarra edo ahoa eta hegalak luze
 Urteak gailendu, ajek azaldu
 Urteen goiengan, jopua jabeen aldean (Munduan aldaketa anitz)
 Urteen kargak bizkarra okertu
 Usteak erdi hutsa eta beste erdia putza Azkue
 Utzi [Itxi] baino lehenago, ondo begiratu URA
 Uzkerra saldu eta putza erosi (Gero eta gaizkiago)
 Xitoek amarekin ikasten dute kabazkan (aztarrikan)
 Xurxuriak haritzari: Zer duk ikara hori? (Zozoak beleari, ipurbeltz)
 Zaharrak egon gura eta umeak egon ezina URA
 Zaharrak lagun berri gutxi
 Zaharrari esker onik ez
 Zaharrentzat mutur salda merke (zapuzkeria eta mesprezioa)
 Zahartu ezkerro, ostikada
 Zahartu gabe ezin bizi
 Zahartzaroak pisua dauka
 Zahartzea, deabruak hartzea (petaltzea, haserrekor bihurtzea)
 Zain dagoena beti larri (Quien espera desespera) Ikus 15938
 zakur isilak horzkarik seguruena
 Zalbibisket, bizker-bizker (Mendata) (???)
 Zaldibikoak arkakusoak
 Zalduna senar ustean, zahar nendin ez ustean (Oinezkorik nahi ez...)
 Zarata bada, bada zerbait
 Zartaginak pertzari ipurbeltz
 Zahartzaroan baztangak (nafarrerria)
 Zatatunik nahi ez et zaldunik izan ez (Oinezkorik nahi ez...)
 Zeberioko errekan, txubelazoak (zapaburuak) kantetan
 Zegamakoak belak
 Zentimo izateko jaio dena ez da sekula pezeta izango
 Zeraindarrak xaguak
 Zerrailu onak hirur urte; zakur onak hiru zerrailu; zamari onak hiru
 zakur; gizon onak hiru zamari
 Zimaurrek akitu ezkerro, arbiak eginak (Orio)
 Zizurkildarrak xixikoak
 Zorrei olio eta kontuak umeei (XB Otxandiano) (Bakoitzari berea.
 Zorrak ordaindu eta umeei ipuintxoak) Ikus 16769

Zortea ez da iraunkorra Ikus 12558

Zotzari muturra zorrotzegia atera eta apurtu (gauzak ongiegi egin nahii izatea txarra)

Obarra: Zenbakiak nire liburuaren bigarren argitalpenekoak dira.

BOR: Bordoñenea, Arizkun

GIL: Gilisasti

MAL: Ez dakit zein den, neuk erabili arren

O: Odriozolatxo baserria, Azpeitia

URA: Jose Maria Uranga, Arrasatekoa

XB: Xabier Burgete, Otxandiano

XK: Xabier Kaltzakorta